# KATALOGOA / CATÁLOGO




EUSKAL HERRIKO **HAZI EKOLOGIKOAK**


**www.aleka.eus**
Leunda Berri baserria | Beizama | 20739 | Gipuzkoa
alekahaziak@gmail.com


eko lurra
Euskadiko Elikagai Ekologikoak
Alimentos Ecológicos de Euskadi

ES-ECO-026-VAS
EB Nekazaritza
Agricultura UE

**www.aleka.eus**

Leunda Berri baserria | Beizama | 20739 | Gipuzkoa
**alekahaziak@gmail.com**

# Aurkibidea
# Índice


**Sorrera**
Origen 4

**Helburua**
Objetivo 6

**Ekoizleak**
Baserritarras 8

## **Gure biltegia** / Nuestro granero

**Hostoak**
Hojas 12

**Fruituak**
Frutos 23

**Sustraiak eta erraboilak**
Raíces y bulbos 39

**Lekadunak**
Leguminosas 43

**Loreak eta landare usaintsuak**
Flores y plantas aromáticas 48

**Ongarri berdeak**
Abonos verdes 52

**Prezioen zerrenda**
Lista de precios 54



# Sorrera. Origen.

**Haziak memoria-ontzi txikiak dira. Bizidun berriak sortzeko gaitasuna dute, baita gizartearen eraldatze-prozesuak sorrarazteko ahalmena ere, nekazaritza eta elikadura oinarri hartuta.**

MUNDUAN BIZI DIREN NEKAZARI-KULTUREK oso ondo ulertu dute biodibertsitatea planeta honetan biziari eusten dion sarea dela. Ulertu dute, halaber, munduko populazioa modu justu eta jasangarrian elikatzeko estrategia onena landatutako biodibertsitatea (tokian tokiko nekazaritza-barietateak eta abere-arrazak) indartzea dela.

Hamar mila urtez baino gehiagoz, haziak nekazari-komunitate eta -kulturen arteko harremanetarako bidea izan dira. Eskuz-esku mugitu dira planeta osoan eta lurralde berrien baldintzetara egokitu izan dira. Tokian-tokian berezkoak ziren ezaugarriekin berridatzitako mezua zeramaten beren baitan. Eta, bidaia horien ondorioz, tokiko barietateak eta nekazari-haziak sortu dira: tokian tokikotik abiatuta dimentsio unibertsala hartu duen ondare biokulturala.

Baina industria-nekazaritza modernoak ez du aintzat hartu ondare baliotsu hori. Eraginkortasun teknikoa areagotzea beste helbururik ez duen jarduera bihurtu da (onura ekonomikoari eusteko berme bakar gisa). Azken hamarkadetan, nekazaritzak itsu-itsuan egin du aurrera, eragiten dituen ondorio sozial eta ekologikoak kontuan hartu gabe: petrolioaren mendekotasuna, uraren gastu neurrigabea, lurren degradazioa, akuiferoen kutsadura, nekazarien eta kontsumitzaileen intoxikazioa, familia-nekazaritza txikia desagertzea, elikadura-sistema menderatzen duten monopolio handiak, gosea eta injustiziak iraunaraztea nekazari-herrien gainean, etab.

Agertoki berri horretan, nekazari-haziek jada ez dute tokirik, eta gero eta artifizialagoa den nekazaritzako ekoizpen-ereduak ezartzen dituen baldintzetara hobeto egokitutako barietate berriek ordezkatu dituzte. Ondo dakigunez, hazi berri horiek ez dira jada lurrean lan egiten duten pertsona guztienak; nazioarteko merkatuak monopolizatzen dituzten enpresa handiek zaintzen dituzte. Nekazariei ukatu egin zaie beren haziekin zuzeneko eta eguneroko harremana izatea. Orain ezin dute erabaki zein erein eta nola egin. Azken finean, dagoeneko ez dira haiek zer jan behar dugun erabakitzen dutenak.

Haziak informazio biokulturala duten ontzi txikiak dira. Bere material genetikoan metatutako ezagutza agronomikotik haratago, hazien bidez Lurrean egin dugun ibilbidearen historia irakur dezakegu: herri nekazariek eguneroko lanarekin bizitzen ikasi zutela gogoratzeko aukera ematen digute. Baina haziak ohartarazpen-oihu bat ere badira: egungo nekazaritza industrialak duen jitoa arriskutsua eta gaiztoa dela ohartarazten digute.

Zorionez, hazi batek izaki indartsu eta loretsu bat sortzeko ahalmena du, baina, halaber, nekazari-hazietan metatutako oroimenak lurra lantzeko eta elikatzeko modu berriak imajinatzen laguntzen digu, bai eta formula berriak irudikatzen ere, komunitate-sarea landatartasunean berriz jostea ahalbidetuko digutenak, lurraren eta pertsonen zaintza erdigunean jarrita.



**Las semillas son pequeños recipientes de memoria. Encierran el potencial de generar un nuevo ser vivo, pero también tienen la capacidad para generar procesos de transformación social a partir de lo agrario y de lo alimentario.**

LAS CULTURAS CAMPESINAS QUE PUEBLAN EL MUNDO han entendido perfectamente que la biodiversidad es la trama que sustenta la vida en este planeta. También han entendido que la mejor estrategia para alimentar, de forma justa y sostenible, a la población mundial es fortalecer la biodiversidad cultivada (las variedades agrícolas y las razas ganaderas locales).

Durante más de diez mil años, las semillas han supuesto una vía de contacto entre comunidades y culturas campesinas. Se han movido, de mano en mano, por todo el planeta y han sido adaptadas a las condiciones de aquellos territorios a los que llegaban. Eran portadoras de un mensaje que se iba reescribiendo con el carácter propio de cada lugar. De estos viajes, han surgido las variedades locales y las semillas campesinas: un patrimonio biocultural que, desde lo local, adquiere una dimensión universal.

Sin embargo, la moderna agricultura industrial ha despreciado este valioso legado. Se ha convertido en una actividad que solo persigue el incremento de la eficiencia técnica (como única garantía para mantener el beneficio económico). Durante las últimas décadas, la agricultura ha emprendido una huida hacia adelante, sin importarle las consecuencias sociales y ecológicas que deja tras de sí: dependencia del petróleo, gasto desmedido de agua, degradación de suelos, contaminación de acuíferos, intoxicación de agricultores y consumidores, desaparición de la pequeña agricultura familiar, grandes monopolios que dominan el sistema alimentario, perpetuación del hambre y de las injusticias sobre los pueblos campesinos, etc. En este nuevo escenario, las semillas campesinas ya no tienen cabida y van siendo desplazadas por nuevas variedades mejor adaptadas a las condiciones que impone un modelo de producción agraria cada vez más atificializado. Como bien sabemos, estas nuevas semillas ya no pertenecen al común de las personas que trabajan la tierra, sino que son custodiadas por grandes empresas que monopolizan los mercados internacionales. A los agricultores se les ha negado la relación directa y cotidiana con sus semillas. Ya no pueden decidir cuáles deben sembrar y cómo hacerlo. A fin de cuentas, ya no son ellos quienes deciden qué es lo que vamos a comer.

Las semillas son un pequeño receptáculo de información biocultural. Más allá del conocimiento agronómico acumulado en su material genético, a través de las semillas podemos leer la historia de nuestro paso por la tierra: nos permiten recordar cómo los pueblos campesinos aprendieron a habitarla con su trabajo cotidiano. Pero las semillas también son un grito de advertencia que nos alerta sobre la deriva peligrosa y perversa que está siguiendo la actual agricultura industrial. Por suerte, así como una semilla contiene el potencial de engendrar un ser vigoroso y floreciente, la memoria acumulada en las semillas campesinas nos permite imaginar nuevas formas de trabajar la tierra y de alimentarnos. Imaginar nuevas fórmulas que nos permitan retejer el entramado comunitario en la ruralidad, poniendo el cuidado de la tierra y de las personas en el centro.

# **Helburua.** Objetivo.

Aleka-aleka esamoldeak eskuz eta kolektiboki artoa edo babarrunak aletzeko ekintzari egiten dio erreferentzia, baina baita gauzak egiteko modu bati ere. Aleka-aleka jardutea lanak ondo egiteko bidean pausuz pausu, mimoz, eta patxadaz jardutea da. Aleka elkartean, aleka-aleka esamoldearen bi esanahiei heldu diegu. Batetik, aleka lan egiten dugu, izenak dioen moduan. Bestetik, haziak ugaltzeko, garbitzeko, hautatzeko, gordetzeko, pisatzeko eta, finean, bizirik iraunarazteko ezinbestekoak diren arretaz eta patxadaz lan egiten dugulako, aleka-aleka, alegia.

Hortaz, haziak dira Alekaren erdigunea eta bertako haziak era ekologikoan ekoiztea, zaintzea eta gordetzea dugu helburu nagusietako bat. Horretarako, hazien ugalketa eta ekoizpena profesionalizatuko dituen egitura sortu nahi dugu, ekimenari egonkortasuna eta sendotasuna eman nahian. Halaber, baserrien arteko sarea ere osatu nahi dugu haziak ekoitzi eta merkaturatzerako. Horrela, hazi-eskaera asebete, landatutako bioaniztasunaren zaintza bultzatu,eta baserritarren eskura hazi libreak jarri nahi ditugu.

Zernahi gisaz, haziak gure bidelagun ere badira; konplize ezin hobeak ditugu landatutako bioaniztasunari, kultura baserritarrari, sektore agroekologikoari berari eta elikadura burujabetzari bizirik eusteko bidean. Hortaz, hauek dira Alekaren helburuak:

- Haziak eta horien **dibertsitatea** gordetzea;
- Nekazaritza sektoreko eta sektore agroekologikoko agenteen arteko zubiak eta **elkarlana** bultzatzea;
- Bertako hazien **garrantzi agroekologikoa** eta **soziokulturala** zabaltzea;
- Ahal dugun neurrian, baserritarrei **babesa** naiz bultzada ematea eta haien bozgorailua izatea hazi eta nekazaritza **autonomiaren** aldeko borrokan.

Haziak bidelagun, landaketen aniztasuna eta aniztasun biokulturala zabaltzen eta biziberritzen jarraitu nahi dugu egungo hazi-merkatuaren alternatiba sortuz, izan ere, hazi-merkatu horrek uniformetasuna eta higadura genetikoa nahiz kulturala inposatzen dizkio gure nekazaritzari. Zuzeneko merkaturatzearen alde egin nahi dugu gertuko kontsumoaren bidez, konfiantzazko lotura eta harreman berriak sor daitezen hazi-ekoizleen eta gure lurraldeko nekazaritza sektorearen zein baratzezain txikien artean.

*Aleka-Aleka, gure baserrietatik, elikadura burujabetza ereiten.*



La expresión *aleka-aleka* (grano a grano) hace referencia a la acción de pelar una mazorca de maíz o desenvainar las alubias, pero también se refiere a una forma de realizar ciertas acciones. Hacer las cosas grano a grano es hacerlas paso a paso, con mimo y con calma. En la asociación Aleka, cuando empleamos esta expresión hacemos referencia a sus dos significados. Por un lado, trabajamos paso a paso, grano a grano, como nuestro propio nombre indica. Por otro, lo hacemos para reproducir, limpiar, seleccionar, guardar, pesar y, en definitiva, realizar con atención y de forma tranquila todo lo necesario para conservar vivas nuestras semillas.

Por lo tanto, producirlas, cuidarlas y almacenarlas de forma ecológica es uno de nuestros principales objetivos. Para ello, queremos crear una estructura que profesionalice su producción y reproducción, y que sirva también para poder darle estabilidad y firmeza a nuestra iniciativa. Además, buscamos formar una red de caseríos con los que producirlas y comercializarlas. Así podremos cubrir la demanda, impulsar la protección de la biodiversidad de aquello que plantamos y poner el producto al alcance de los baserritarras.

Aunque las semillas también son nuestro compañero de viaje; un cómplice inmejorable en nuestra labor de trabajar por mantener viva la biodiversidad de lo plantado, el sector agroecológico y la independencia alimentaria. Estos son los objetivos que nos marcamos en Aleka:

- Salvaguardar las semillas y su **diversidad.**
- Impulsar el **trabajo en equipo** entre los diferentes agentes del sector agricultor y del agroecológico.
- Dar a conocer la **importancia agroecológica y sociocultural** de nuestras semillas.
- Dar **apoyo** a los baserritarras, así como ser su portavoz en su guerra por lograr **autonomía** en el sector de la agricultura y en el de las semillas.

Nuestro objetivo es seguir expandiendo y revitalizando la diversidad de nuestras plantaciones creando una alternativa al mercado de semillas de hoy en día, que impone a nuestros baserritarras una uniformidad y un desgaste tanto genético como cultural. Apostamos por el comercio directo mediante el consumo local, para crear nuevas relaciones de confianza entre los productores de semillas y los agricultores y hortelanos de nuestro territorio.

*Aleka-aleka, sembrando la independencia alimentaria desde nuestros caseríos.*

# Ekoizleak. Baserritarrak.



## Leunda-berri (Beizama)

alekahaziak@gmail.com

Miguel Arribas "Kelo" izan zen Alekaren sortzailea 2016an. Jatorriz madrildarra baina 11 urte daramatza Beizaman. 15 urtetik gora darama baratzezaintzan. Baserritarren eskubideak berreskuratzea eta ekoizleen haziak merkaturatzen laguntzea du xede.

Miguel Arribas 'Kelo' fundó Aleka en 2016. Este madrileño trabaja en el sector agrario desde hace más de 15 años y lleva 11 años viviendo en Beizama. Trabaja en recuperar los derechos de los productores y por facilitar la comercialización de las semillas.



## Karabeleko (Hernani)

karabeleko@gmail.com

Amaia Odriozola Hernaniko Karabeleko etxalde esperimentaleko langilea da. Bertan agroekologia sustatu eta buruko osasun arazoa duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea bultzatzen dute.

Amai Odriozola es miembro de Karabeleko, asociación sin ánimo de lucro que promueve la producción y consumo de horticultura ecológica y da impulso a la integración laboral de personas con problemas de salud mental.



## Allanegi Baserria (Elduaien)

enima@euskalnet.net

Eneko Imaz Elduaienen kokatzen den Allanegi baserrikoa da. Barazkiak, sagarrak eta Tolosako babarrunak ekoizten ditu. Halaber, Ibarrako eskolako jantokia hornitzen du.

Eneko Imaz es miembro del caserío Allanegi, situado en Elduaien. Es productor de verduras, manzanas y Alubias de Tolosa. Asimismo, es proveedor del comedor de la escuela de Ibarra.



## Ortuzalaba Kontsumo taldea (Oñati)

ortuzabala@gmail.com

Oñatiko Ortuzabala kontsumo taldeko kideak dira **Asier Garai, Javier Salas, Martin Ezkati eta Eñaut Uribesalgo.** Barazkiak kontsumo taldekoen artean banatu eta herriko azokan saltzen dituzte.

**Asier Garai, Javier Salas, Martin Ezkati y Eñaut Uribesalgo** forman parte del proyecto Ortuzabala de Oñati. Distribuyen verduras en su grupo de consumo y también las venden en el mercado del pueblo.





## Eskubaratz Elkartea (Izurtza)

lurretikbizi@gmail.com

**Nere Aspiazu, Jon Ruiz eta Julen Azkoaga dira Eskubaratz proiektuko kide. Izurtzan (Bizkaia) sortutako lantaldeak, otarrak banatzen ditu azoketan, eta ekoizpen agroekologikoaren alde apustu egiten du.**

El proyecto Eskubaratz de Izurtza (Bizkaia) está formado por Nere Aspiazu, Jon Ruiz y Julen Azkoaga. Reparten cestas en diferentes mercados de la zona y realiza una firme apuesta por la producción agroecológica.



## Sakona Etxaldea (Azpeitia)

sakonaetxaldea@gmail.com

**Ioritz Igarataundi, Komuntzo baserrian, Azpeitian, kokatzen den Sakona etxaldeko arduraduna da. 2014an hasi zen etxe inguruko lurretan baratzezaintza, frutazaintza eta artzaintza ekologikoa lantzen.**

Iorit Igarataundi es responsable de Sakona, la finca ecológica ubicada en el caserío Komuntzo de Azpeitia, en el año 2014 comenzó a trabajar la agricultura, fruticultura y pastoreo ecológico en las tierras que rodean la casa.



## Elkoro baserria (Bergara)

anegoromon@gmail.com

**Ane Gorosabelek, Malkorra proiektuan barazki ekologikoak ekoizten ditu. Aitona-amonen baserria oinordetzan hartuta, hazien inguruko ezagutza berreskuratzea eta ekoiztutako haziak merkaturatzea da bere helburua.**

Ane Gorosabel es miembro del proyecto de horticultura ecológica Malkorra. Al recibir de herencia el caserío de sus abuelos, tuvo un objetivo claro: recuperar el conocimiento sobre el cultivo de semillas y darlo a conocer en el mercado ecológico.



## Donieneberri (Itziar)

potonisx2@hotmail.com

**Nerea eta Miriam Arrizabalaga Itziarko Donieneberriko ahizpa baratzezainak dira. Amak erakutsi zien haziak lortzen eta kontserbatzen. Gaur egun, euren baserriko hazi ekologikoak ekoizten dituzte otarrentzako eta tokiko merkatuetan saltzeko.**

Nerea y Miriam Arrizabalaga son dos hermanas del caserío Donieneberri de Itziar. Fue su madre quien les enseñó a conseguir y conservar las semillas. Hoy en día, producen verdura de forma ecológica tanto para su propio caserío como para cestas y mercados locales.

## Irure Baserria (Errezil)

irurebaserria@gmail.com



**Alice Goffart Errezilgo Irure baserriko kidea da. Baserrian ekoiztutako barazkien eta fruituen otarrak banatzen ditu Azpeitiko Elikagunean, besteak beste.**

Alice Goffart forma parte del caserío Irure de Errezil y se encarga de, entre otras cosas, repartir en el Elikagune de Azpeitia las cestas de verduras y frutas producidas en casa.

## Elkano Baratzea (Aia)

micros77@hotmail.com



**Luis Miguel Herranz Aiako Elkano Baratzeko kidea da. Barazkiak ekoizi eta otarrak banatzen ditu partikularren artean. Duela gutxi, hazien sektorean murgildu dira.**

Luis Miguel Herranz es productor de la huerta Elkano de Aia y reparte cestas de verdura entre clientes particulares. Se integró hace poco en el mundo de las semillas.

## Urteaga-Urkulegi etxaldea (Itsaso)

gorkasasieta@gmail.com



**Gorka Sasieta Itsasoko Urteaga-Urkulegi etxaldeko kidea da eta 2012 urteaz geroztik barazkiak, garaiko fruta, fruitu gorriak eta haragia ekoizten dituzte ekologikoan. Batik bat, Zumarraga-Urretxu eta Beasaingo kontsumo taldeetan banatzen dituzte.**

Gorka Sasieta es miembro del caserio Urteaga-Urkulegi de Itsaso. En él producen verduras, frutas de temporada y carne en ecologico desde 2012. Sobre todo reparten en los grupos de consumo de Zumarraga-Urretxu y Beasain.

## Lizardi baserria (Astigarraga)

info@lizardibaserria.com



**Jose Antonio Olano eta Javier Loiarte dira Lizardi baserriko barazkigileak. Aztigarraga eta Hernanin banatzen dituzte barazkiak eta Donostiko San Martin azokan salmenta postua jartzen dute. Sagarrondoak ere badituzte.**

Jose Antonio Olano y Javier Loiarte son los agricultores del grupo de kontsumo Lizardi. Reparten en Aztigarraga y Hernani, y venden en el mercado San Martin de Donosti. También tienen manzanos.

## Mendarte baserria (Zerain)

Intxausti.iturzaeta@gmail.com



**Iñaki Intxausti (Mendarte), Zerain eta Segura tartean mugitzen den baserritarra da. Baratzezaintzaz aparte abeltzaintzan ere aritzen da. Aizkorpe bailarako kontsumo taldean edo Ordizi eta Segurako azokan aurkitu dezakegu.**

Iñaki Intxausti (Mendarte), es un agricultor que se mueve entre Zerain y Segura. Aparte de productos de huerta también se dedica a la ganadería. Le podemos encontrar en el grupo de consumo del valle de Aizkorpe o en los mercados de Ordizia y Segura.

# Gure biltegia.

## Nuestro granero.



# Hostoak
# Hojas

## Albahaka
## Albahaca
01



### Genovesa

Hosto handi eta distiratsuko barietatea, usain oso handikoa. Erraz hazten da udan eta ondo eusten dio haizeari eta pisuari.

*Variedad de hojas grandes y brillantes y una fragancia muy intensa. Fácil cultivo durante el verano y resistencia a vencer por el viento o el peso.*

## Apioa
## Apio
02



### Vert d´Elene

Apio barietate oso interesgarria, ondo jasaten bait ditu negu heze eta hotzak. Hostaila kolore berde ilunekoa du, orri-mami mamitsuak eta borobilduak. Sukaldaritzarako bikaina.

*Variedad de apio muy interesante por su resistencia a los inviernos húmedos y fríos. Follaje denso de color verde oscuro y pencas carnosas y redondeadas. Excelente calidad culinaria. Variedad de follaje verde y costillas redondas.*

## Ardi-Mihia
## Canónigos
03



### Vit

Barietate goiztiarra, hotza ondo jasaten duena eta zapore onekoa. Hostotza erroseta formakoa, tamaina ertainekoa, trinkoa, pixka bat goratua, obalatua, berde iluna eta distiratsua. Indartsua eta ernaberritzeko gai da. Ezin hobea zuzenean ereiteko.

*Variedad precoz, muy buena resistencia al frío y buen sabor. Follaje en forma de roseta de tamaño medio, denso, ligeramente erecto, ovalado, verde oscuro y brillante. Buen vigor y capacidad de rebrote. Ideal para siembras directas.*

# Aza
Col
*Brassica oleracea var. capitata*
04



## **Hernanikoa** | Candela

**Barietate oso gogorra eta oso erresistentea hezetasunarekiko eta hotzarekiko. Buru handikoa. Hostoak leunak eta berde argiak dira.**

*Variedad muy rústica, de gran resistencia a la humedad y el frío. Cabeza de tamaño grande con hojas lisas. Color verde claro.*



## **Kizkurra** | Milan des Vertus

**Barietate oso goiztiarra. Buruak ertainak dira, 500-1.000 g-koak. Ekainean hasi eta lehen izotzak hasi arte bil daiteke, nahiz eta, gurean, ondo jasaten dituen neguko izotz ahulak, eta martxoan garatu arte bil daitezkeen.**

*Variedad muy precoz, con cabezas de tamaño medio (500-1000g). Las primeras cosechas son posibles desde junio aunque en nuestro clima aguantan bien las heleadas ligeras hasta su espigado en Marzo y duran hasta las primeras heladas.*



## **Txinatarra** | China

**Barietate oso sendoa, oso hazkuntza azkarrekoa eta handia. Buru trinkoak sortzen ditu, 40 cm artekoak. Uztaila bukaera eta abuztua bukaera artean ereitea aholkatzen da.**

*Variedadad muy robusta y de crecimiento muy rápido. Fácil cultivo y gran tamaño. Produce cabezas compactas de hasta 40 cm. Siembra recomendada de julio a finales de agosto.*

# Aza gorria
Lombarda
*Brassica oleracea var. capitata*
04



## **Buru Beltza** | Tête Noire 3

**Ziklo goiztiarreko barietatea eta buru handiak eta trinkoak ematen dituena. Garatzearekiko erresistentzia ona du, beraz, oso egokia da neguan zehar biltzeko. More-kolore ilunekoa da. Zapore bikaina du.**

*Variedad que formas cabezas de gran tamaño y muy compactas. De color morado oscuro. Resite bien el espigado lo que la hace ideal para su cosecha durante el invierno. De excelente sabor y ciclo temprano.*

# Azalorea
# Coliflor
*Brassica oleracea var. botrytis*

04



## Bola de nieve

Barietate erdi goiztiarra, 110-120 eguneko zikloa duena, erein ondoren. Bereizgarriak ditu buru astuna, borobila eta irregularra; zuri esne-kolorekoa eta pikor finekoa.

*Variedad semi-precoz. Ciclo 110 a 120 días después de la siembra. Se caracteriza por una cabeza pesada, redonda e irregular, un blanco lechoso y granos finos.*

# Brokolia
# Brócoli
*Brassica oleracea var. italica*

04



## Calabrese

Barietate gogorra, udaberrian eta udazkenean hazteko gomendatua, bereziki. Buru nagusiaz gain, alboetan hainbat txiki ematen ditu. Erein: berotegian, martxoa-ekaina; aire librean, ekaina-uztaila.

*Variedad robusta recomendada para el cultivo en primavera y otoño, que permite la obtención de numerosos brotes laterales además de la cabeza central. Siembre en invernadero de marzo a junio o al aire libre de junio a principios de julio.*



## Calinaro

50 eguneko zikloa loratu aurretik. Landare ertaina. Buru nagusi handia, 350 g ingurukoa. Berde iluna. Jateko oso ona.

*Variedad de tamaño intermedio con una cabeza central de gran tamaño (aproximadamente 350 g). Color verde oscuro. Ciclo de 50 días antes de la floración. Excelente calidad gustativa.*

# Borraja
*Borago officinalis L.*

05



## Flor blanca

Barietate oso gogorra, erraz haztekoa. 50-60 cm-ko garaiera du. Erraz garatzen du lorea, beraz, landarea azkar haztea lortu behar da. Zurtoin luze eta zaporetsuak ditu.

*Variedad muy rústica, cuyo cultivo es fácil. El porte es de 50-60 cm de altura, de fácil subida a flor por lo que se debe obtener una rápida vegetación. Tallos largos y sabrosos.*

# Endibia
# Endivia

*Cichorium endivia L.*

06



## Witloof

Edozein lurretarako egokia da. Zapore bikainekoa. Hotz eta hezetasunaren aurrean iraunkorra. Oso emankorra da.

*Adecuado para todo tipo de suelos. Exquisito sabor. Resistencia al frío y a la humedad. Muy productiva y resistente al dorado interno.*

# Errukula

*Eruca sativa L.*

07



## Salad Spirit

Oso barietate gogorra da eta edozein lurmotara egokitzen dena. Hezetasunarekiko eta tenperatura baxuekiko izugarri erresistentea. Hosto handiak ditu, berde ilun kolorekoak. Min samarra da, eta zapore naiz usain handikoa.

*Variedad extremadamente resistente a la humedad y bajas temperaturas. Hojas de gran tamaño y coloración verde oscura. Picor moderado y gran sabor y aroma. Muy rústica y adaptable a cualquier tipo de suelo.*

# Eskarola

08



## Cabello de ángel

Eskarola gogorra eta erresistentzia handikoa. Hosto finak eta oso kizkurrak ditu. Jateko oso ona, zapore gozoak eskainiz neguaren ondoren.

*Escarola de hojas finas y muy rizadas. Muy sabrosa. Ofrece un sabores dulces después del invierno. Resistente y rústica.*



## Lisua | Bianca a cuore pleno

Udazkeneko eta neguko uztarako aproposa. Kolore berdeko hosto handi eta bihotz horikoa. Jaiotzetik lehen uzta bitarteko zikloa 95 egunekoa da.

*Variedad ideal para las cosechas del otoño-invierno por su adaptación a clima húmedo. Gran tamaño de hojas verde claro con el corazón amarillento. Ciclo de 95 días aproximadamente desde la nascencia hasta la primera cosecha.*

## Kardua
## Cardo

*Cynara carduncululus L.*

09



### Cynara cardunculus L

Barietate handia, izotzarekiko eta hezetasunarekiko oso erresistentea. Landare bizikorra da. Pezioloak beteak ditu, luzeak, zabalak, arantzik gabeak eta kalitate bikainekoak.

*Variedad de gran desarrollo. Planta vivaz. Peciolos llenos, largos, anchos, carentes de pinchos y de excelente calidad. Variedad de gran resistencia a las heladas y la humedad.*

## Kukulua
## Cogollo

*Lactuca sativa L.*

10



### Tuterakoa | Tudela

Erromatar uraza, edo letxugaren barietate nanoa, oso gogorra. Goiz garatzeko joera du. Oso buru bildua du, berde ilunetik oso argirako koloreekin, landare berean. Hostoak oso zimurrak dira, testura samurrekoak eta urtsuak. Zaporea pixka bat mikatza.

*Variedad enana de lechuga romana. Presentan una cabeza muy acogollada de colores que van en la misma planta del verde al verde muy claro. Hojas muy rugosas. Muy resistentes y rústicas. Con tendencia al espigado precoz. Sabor ligeramente amargo. De textura muy tierna y jugosa.*

## Letxuga

*Lactuca sativa L.*

11



### Batavia | Edurne

Batavia motakoa. Komertzialki oso hedatua. Buru borobilduak ditu, ez oso bildua.

*De amplia difusión comercial. Cabezas redondeadas con hojas rizadas de color verde-amarillo muy claro. Desarrolla cabeza sin fuerte acogollado.*



### Hoja de Roble | Belgarde

Haritz-hostoa motako uraza edo letxuga, udaberrian eta udazkenean hazten dena. Bururik gabeko hostotza ugaria du eta pisu handikoa. Gorri-kolore oso iluna hazkunde osoan. Azpialde zapal eta estali oso polita, moztea errazten duena.

*Color rojo muy oscuro durante todo el tiempo de cultivo. Follaje denso y gran peso sin hacer cogollo. Preciosa parte inferior plana y recubierta que facilita el corte. Crece en primavera y otoño.*

# Letxuga

*Lactuca sativa L.*

11



## Lollo Rosa

Oso hostotza ugariko uraza, granate-kolorekoa eta eite bildukoa. Gorria, nahiz eta, batzuetan, mozteko ezin hobetzat jotzen den. Neguan hasi eta udaberria bukatu arte erein daiteke. Oso ondo kontserbatzen da.

*Sembrar de invierno a fin de primavera. Roja aunque a veces considerada ideal para cortar. Muy buen follaje de tono marron rojizo y de porte compacto. Muy buena conservación.*



## Maravilla de Invierno | Merveile d´hiver

Barietate gogorra. Buru handikoa, azkar eratzen dena. Kolore berde-horia du eta oso zapore ona. Bereziki erresistentea izotzarekiko, beraz, egokia negua kanpoan emateko; udan ereitekoa.

*Sembrar en verano. Lechuga especialmente resistente al hielo para hibernación en el campo. Cogollo voluminoso, follaje verde rubio que se forma muy rápido. Variedad rústica de muy buen sabor.*



## Maravilla de Verano

Ziklo berantiarra du. Barietate egokia urte osoan hazteko, baina bereziki udan, nekez garatzen baita. Hostoak borobilduak dira, oso zabalak, ertz kizkurra, azalera zimurra eta testura kurruskaria dutenak; kolorez berde ilunak, pigmentazio moreekin.

*Variedad para cultivar durante todo el año aunque su gran resistencia al espigado la hacen ideal para el verano. Ciclo tardío. Hojas redondeadas, muy anchas, verde oscuro con pigmentaciones moradas, de bordes rizados, superficie rugosa y textura crujiente.*



## Neguko gorria | Roja de invierno

Barietate mamitsua. Egokia denboraldiko lehen ereiteetarako edo udazkenean hazteko. Kolore berdea ertz gorriztekin. Indartsua eta zapore handikoa.

*Variedad carnosas. Indicanda para las primeras siembras de la temporada o para el cultivo de otoño. Color verde con bordes rojizos. Vigorosa y de gran sabor.*

# Letxuga

*Lactuca sativa L.*

11



## Martina ❄

**Arabar mendiarteko letxuga mota. Zapore suabe, kukulu tinko eta ongi osatutakoa. Ziklo luzekoa. Neguan erein eta udaberrian kontsumitzeko aproposa.**

*Variedad de la Montaña Alavesa recuperada por su interés culinario y por su excelente adaptación además de su gusto suave. Produce un cogollo prieto y bien formado. De ciclo largo, es especialmente interesante para su siembra en invierno y consumo durante la primavera.*



## Reina de los hielos | Reine des Glaces

**Batavia motako uraza edo letxuga. Hostotza oso laburra; burua txikia eta ugaria da, berde iluna. Hostoak zaporetsuak eta oso kurruskariak dira. Egokiena da udaberri eta udan haztea, nahiz eta neguaren hasierako laztasuna jasan dezakeen.**

*Lechuga tipo Batavia que acepta moderadamente los primeros rigores del invierno aunque puede ser cultivada para primavera y verano también. Follaje muy cortado. Pequeña cabeza verde oscuro, muy densa. Hoja sabrosas y muy crujientes.*

# Martorria Cilantro

*Coriandrum sativum L.*

12



## Santo

**Barietate gogorra eta eite trinkoa duena; 40-60 cm-ko garaiera. Hosto freskoak edota hazi helduak jaten dira. Zapore handikoa.**

*Variedad de 40 a 60 cm de altura, de la familia de las umbelíferas. Se consumen hojas frescas o semillas maduras. Gran potencial aromático. Porte denso. Rústica y resistente.*

❄ Erregistratu gabeko barietatea; merkaturatzeko baimenik ez. Barietate horiek ezingo dira saldu. Alekan hauetako batzuk ekoizten ditugu. Helburua, hauen iraungipena eta gure lurretako biodibertsitatea bermatzea da.

*Variedad fuera de registro. Sin autorización comercial. Según la normativa vigente cualquier variedad fuera del registro tiene prohibida su comercialización. Desde el banco de germoplasma de Aleka producimos algunas de estas variedades para su conservación y para el fomento de la biodiversidad cultivada en nuestros territorio.*

## Mihilua
## Hinojo

*Foeniculum vulgare Mill*

13



### Tardivo di Sarno

Barietate goiztiarra, oso gogorra eta oso ondo egokitzen dena edozein lurretara. Ernetzeko gaitasun handia du. Erraboilka handiak, borobilak, trinkoak, mamitsuak eta erabat zuriak dira; kurruskariak zapore gozoak eta usaintsuak. Hostoak finak eta berdeak dira.

*Variedad precoz, bulbos redondos y grandes, apretados, carnosos y totalmente blancos. Son crujientes y tienen sabores dulces y aromáticos. Las hojas son finas y verdes. Gran rusticidad y adpatabilidad a cualquier tipo de terreno. Gran capacidad germinativa.*

## Mizuna

*Brassica rapa V. japonica*

14



### Gorria

Oso goiztiarra, indartsua eta gogorra, oso emankorra, edozein lurretan moldatzen dena. Hosto tenteak ditu, purpura-kolorekoak. Kimu gazteak entsaladan jan daitezke, noiz nahi; landare handiagoak uda-udazkenean biltzen dira.

*Muy temprana. Para el cultivo de primavera y otoño. Vigorosa y resistente. De color púrpura oscuro muy vistoso o en todas las estaciones. Hojas erguidas y rojas. Muy productiva. Para consumo de brotes jóvenes en ensalada. Adaptable a todo tipo de suelos.*

## Perrexila
## Perejil

*Petroselinum crispum*

15



### Hoja grande | Gigante d´italia

Hosto ertain-handiko perrexila. Oso gogorra eta indartsua. Berde iluna. Klima hezeetara egokitua dago eta garatzearekiko bereziki erresistentea da, beraz, oso egokia udaberrian erein eta urte osoan kontsumitzeko.

*Perejil de hojas de tamaño medio-grande. Coloir verde oscuro. Muy rústica y vigorosa. Resistente y adaptada a clima húmedos y al espigado, lo que hace ideal su cultivo durante la primavera para su consumo durante todo el año.*

## Porrua
## Puerro

*Allium porrum L.*

16



### Monstruoso Plata

Barietate oso gogorra eta oso ondo egokitua isurialde kantauriarreko kondizioetara. Garatzearekiko erresistentea. Zurtoin mardula eta trinkoa du, tamaina ertainekoa, eta zapore gozoa.

*Variedad muy rústica y muy adaptada a las condiciones cantábricas. Resistencia al espigado. Tallos de gran fuste y firmes. Tamaño mediano. Sabor dulce.*



### Atal

Goiztiarra, emankorra eta gorputz tentekoa. Urte guztian zehar eremu epelean landatu daitekeena. Hostoak kolore berdekoak eta zabalak dira. 35cm baino gehiagoko fuste potoloa sortzen du. Urtarriletik maiatzera bitartean erein eta ekainetik urtarrilera bitarte izango da jasotzeko epea.

*Variedad precoz, productiva y de porte erecto. Para cultivar durante todo el año en zonas muy templadas. Las hojas son de color verde franco a verde claro, muy anchas. Produce un fuste grueso, muy largo, de más de 35 cm. Se siembra desde enero hasta mayo, para recolectar desde junio hasta principios de enero.*

## Tatsoi

*Brassica rappa L.*

17



### Berdea

Ezaugarri nutritibo bikainak dituen kimu gaztea. Gordinak edo sukaldatuta jan daitezke. Goiztiarra da. Zurtoin motz eta kolore berdekoa, eta orri-mami zurikoa.

*Brotes jóvenes para consumir en fresco o cocinados. Con excelentes cualidades nutritivas. De crecimiento medio, forma un follaje compacto en forma de roseta. Variedad temprana de tallos cortos de color verde pálido con pencas blancas.*

## Txikoria
## Achicoria

*Cichorium intybus L.*

18



### Diente de León

Hezetasun eta hotzarekiko erresistentea, egoki-egokia udazken eta negurako. Hosto estu eta luzeak ditu (30 cm inguru), kolore berde ilunekoak, modu irekian kokatuak; orri zatituak ditu, erdiko nerbioa inguratuz, zeinak bioleta kolorea hartzen duen behealdean. Zapore gozoa du.

*Planta de hojas estrechas y largas (aprox. 30 cm), de color verde oscuro, disposición abierta y limbos partidos, cubriendo el nervio central, que en la base toma un color violáceo. De sabor dulce. Perfecta adaptación al clima de otoño-invierno. Resistente a la humedad y el frío.*

# Xixo
# Perilla

*Perilla frutescens*

19



Lamiazeoen familiako urteroko landarea. Hostoak osinarenaren antzekoak dira. Oinarrizko olioak ditu, zaporea ematen diotenak, baita sendabelarretarako eta gastronomiarako propietateak ere.

*Planta anual de la familia de las lamiáceas. Las hojas se asemejan a las de la ortiga. Contiene aceites esenciales que le dan su aroma, y le otorgan algunas propiedades medicinales y gastronómicas.*

# Zerba
# Acelga

*Beta vulgaris L.*

20



## Amarilla de Lyon 3

Kolore berde eta horixka duen zerba mota da honakoa. Peziolo txuri, haragidun eta xamurra. Urteko edozein garaietan erein daiteke.

*Variedad de acelga con muchas hojas de color verde amarillento. Pecíolo blanco, carnoso y tierno. Excelente adaptción a su cultivo y cosecha en cualquier época del año.*



## Koloretakoa | Bright Lights

Oso gogorra eta indartsua. Hainbat koloretako zerben nahastea da: gorriak, horiak, arrosak eta zuria. Hostoak berde ilunak dira eta orri-mamiak kolore deigarritakoak. Zapore bikaina dute.

*Mezcla de acelgas en una colección en diferentes colores: rojo, amarillo, naranja, rosa y blanco. Las hojas son de color verde oscuro en pencas de colores muy llamativos. Además ofrece un gran vigor y rusticidad y un excelente sabor.*



## Verde de penca blanca ancha

Barietate oso gogorra eta indartsua da, garatzearekiko erresistentzia handikoa. Orri-mami zuri, zabal, lodi eta mamitsuak ditu. Hostoak berde-kolore ilunekoak dira eta ugariak. Bikaina urte osoan hazi eta biltzeko.

*Gran resistencia al espigado. Muy rústica y vigorosa con anchas pencas blancas gruesas y carnosas. Hoja de color verde oscuro y gran densidad.Excelente adaptación a su cultivo y cosecha en cualquier época del año.*

# Ziazerba
# Espinaca

*Spinacia oleracea L.*

21



## Gigante de invierno

